

## Mondragon Unibertsitateak diplomak eman dizkie Oñatiko Campuseko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradu eta masterretako 129 ikasleri.

2017/06/12

Enpresagintza Fakultateak diplomak banatu dizkie Oñatiko campuseko 129 ikasleri. Ikasleok campus horretako Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradu eta graduondokoak izan dira.

Zehatz-mehatz, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradu 61 ikaslek (27 neskek eta 34 mutilek) eta Fakultateak eskainitako bost masterretako 68 ikaslek (35 neskek eta 33 mutilek) jaso dituzte diplomak.

Tituluak emateko ekitaldia 18:00etan izan zen ostiralean, Oñatiko Campuseko Enpresagintza Fakultateko Areto Nagusian. Ekitaldi akademikoan zehar, bertaratuek honako solasaldi honetan parte hartzeko aukera izan zuten: "Talentua garatzea eta enpresaren beharrak". Parte-hartzaileak: Miriam Aguado (People Matters-eko zuzendaria), Siv Bermeosolo (Cutting Tools-eko product managerra) eta Zigor Sagardui (Gureak Taldeko prestakuntza-arduraduna), baita Fakultatearen aldetik Mikel Mesonero ere, moderatzaile moduan.

Vicente Atxak, Mondragon Unibertsitateko errektoreak, itxi zuen ekitaldia, eta Lander Belokik, Enpresagintza Fakultateko dekanok, eman zion irekiera.

